

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure zerbitzua aurrera ateratzeko eta hau arrakastatsua izateko ezinbestekoa izango da, alde batetik, ipuinak behar bezala osatuta eta guk nahi dugun edukiarekin idatzita egotea, eta, bestetik, irabaziak ateratzeko adina bezero izatea. Beraz, bi atal horietan jarriko dugu arreta berezia.

Hiru taldekide gara eta normala denez, bakoitzak bere abilezia eta trebetasunak ditu (funtsezko baliabideetan aipatu ditugunak). Horiek aprobetxatuko ditugu gure kabuz ahalik eta zeregin gehien egiteko, baina taldekideren batek larritasunak izanez gero, elkarlanean arituko gara eta denon artean laguntzen saiatuko gara. Hala ere, beste elkarte batzuek laguntza jasotzea derrigorrezkoa izango dugu.

Uxurik txikitatik marraztu izan duenez, esperientzia handia du marrazten beraz, ilustrazioak egin ahal izango ditu bere trebetasunaren esker, ipuinen diseinu orokorra modu egoki eta erakargarri batean ere antola ditzazke. Bera arduratuko da beraz ipuinen diseinu eta ilustrazioaz, hauek irudimentsuak, koloretsuak, uniformeak eta deigarriak izan daitezten. Gainera, telebistan azalduko den iragarkia ere berak muntatuko du, edizio klaseak jaso dituelako.



Beste alde batetik, Amaya literatura munduan oso murgilduta dago, irakurle amorratua eta idazlea ere bada. Testuak idazterako orduan erraztasun handia du eta, gainera, feminismoan oso sartuta dago, horregatik, ipuinak berak idatziko ditu istorio originalak jada ezagutzen dituelako eta hauek beste kutsu bat izan dezaten nola aldatu badakielako. Iragarkiaren gidoia berak sortuko du.

Gainera, hainbat elkarterekin kontaktua mantendu beharra dago (funtsezko elkarteetan aipatutakoak hain zuzen ere). Horretarako, pertsona bat egon behar da taldeko idazkari gisa eta berak duen komunikatzeko erraztasunean oinarrituta, lan hau Josebak beteko duela pentsatu dugu.



Azkenik sare sozialak (instagram, facebook...) ere eguneratuta mantendu beharko ditugu, irakurleen iritziak kontuan izateko eta bezeroarekiko dugun harremana estuagoa izateko. Honen kudeaketaz hirurok arduratuko gara, batek publizitatea egingo du argazkiak igoz, beste bat famatuekin jarriko da harremanetan beraien sare sozialetan gure proiektua erakutsi dezaten gu publizitatzen gaituzten bitartean eta bezeroekin hitz egingo du, beraien dudak argituz edota proposamenak jasoz.

